

ALESTAR NESKATXA

(F. Mistral'ena)

Neuk diñotzuet, eta zuek daustazue siñistuko, mintzogai dodan neska-
txa —erregiña bat zala, jakin bear dozue ba —ogei urte eukazala ta
Arles'koa zala. —Astelen eder baten aurkitu neban nik —padura loitzune-
tan: —penagarri zan egiaz —bero-sapa arekin joatea, —zii loratuak art-
zera— gaztaientzako.

“Ene lagun eder, olan ba zure gurasoak —zure matrail gordiñak nai
dabez marroiztu?... —E! Zatoz ona iturburu ondora, —bedarrak ain aundi
diran lekura”. —Ene lagun eder, azpi erreak, —gari ona dakar: —nire gin-
baillak —dagonilletik naiko nau zaintzen: —ona jatzu zure kerizpea billa-
tzea —eta kardantxiloai.

“Ene lagun eder, samur daukazun arren, —biotza. latza da zure itza:
—ikus daigun, urrezko betarte polit, —Rouqueto'koa zara ala guen-auzu-
nekoa?” —Ene lagun eder, erantzutera noakizu: —egi-egiaz, —arlestarra
nozu... —baiña zu, iñundikan be, Martego'a zaitut; —angila arrantzale
—edo-ta zaparda artzaille”.

“Ene lagun eder, esaidazu, —Arleskoa zara-ta, antxe bizi zara, —nire
maitesua zugaratu dan ezkerro —neu il arte edo zeu il arte”. —Ene lagun
eder, esnea saltzen dot nik, —eta bizi naz —Auro'ren atean; —zaldizain
bat da nire maitale —mugazain batek lez ni zaintzen nauana, —guztiz
beartsu nazan arren”.

“Lagun eder, negu ta uda —segi mugazaiñaz maiteminduta, —onegia
bait zara —nik zoritxarreko egin zaidazan”. —“Errazoia dozu, nire zain-
tzailleak, ba, —kristau fedearren! —igarotako igandean —zin-egin eusran
plazan —bere zikaiz aldderen alde zulatuko ebala —leenengo begiratu eus-
tana”.